

Mikel Laboak poliki-poliki berragertu nahi luke

Datorren ostiralean Donibane Garazin kantatuko du

DONOSTIA (EGIN).— Datorren ostiralean Donibane Garazin, uztailearen 7an Getxon eta 20an Lizarran programaturik dituen kantaldiekin berragertuko da Mikel Laboa kantaria, urteetako isilaldiaren ondoren.

«Piska bat larriturik nago eta jendea enteratu gabe plazaratu nahi nuke berriro, isil-isilik. Ez ie-zaidazue publizitate gehiegirik egin», erantzun zion egunkari honi, ostiraleko agerraldia arras esporadikoa zen edo ez jakin nahiz galdegitean. «Datorren hilaren 7an Getxon kantatuko dut eta 20an Lizarran», esan zuen, plazaratze hau definitiboa zen edo ez erabat zehaztu gabe. Mikelen bigarren aldiko debutok ez dute, dena den, «Ez dok hamairu» taldeko beste zenbaitek duela gutxi egin dituztenekin zerikusirik. «Erabaki pertsonal bat izan da», esan zuen eta nahiago zuela aktuzio horien «sustoa» pasatu ondoren hitzegitekotan ere hitzegitea. Mikel Laboa «Ez dok hamairu»ko kantaririk ezagunenetakoa izan zen eta bost urte bazituen plazaratu gabe. «Hiru urte eta gehiago dira azken diskoa kaleratu nuela eta ez nuen aurkezpenik ere egin», esan zuen.

Isilaldi luze horren buruan ostiralean egingo du lehen debut berria eta Getxoko Udalak eratu duen jaialdi batetan bigarrena Fadura Kiroldegian. Lizarran, azkenik, hirugarren emanaldi bat du programaturik Laboak.



ARTXIBO

Garaziko herria hautatu du Laboak eszenarioetara itzultzeko.